

Aitzpea Leizaola

Mugaz (gaindiko) paradoxa sorta bat Joxe Azurmendirentzat

Udaberri eguerdi bat duela kasik hiru hamarkada. Ez dut oroitzen nora nindoan ez eta zer enkargu klase egiten ari nintzen, baina bai, Euskadi Irratiko elkarrizketa batek kateatua, azkenerako autoa bigarren ilaran aparkatu nuela Hondarribia kalean, artean turistarik gabeko Donostian. Han egon nintzen, irratia entzuten, adi. Joxe Azurmendi ari zen hizketan. Klase magistrala ematen ari zen Zegamakoa, edukiz eta formaz, ahots leunez eta patxadaz, arantzas beteriko orduko eszenatoki politikoa ezin hobeki ulertzeko gakoak ematen. Umil bezain zorrotz, argi bezain xehe, hitz handiusterik gabe, nazio estatuaren eraikuntza prozesuak azaltzeko gakoak ematen. Guretik abiatuta beste testuinguru batzuetakoak ulertzeko moduan ere.

Paris X Unibertsitatean antropologia doktoregoa burutzen ari nintzen, artean. Muga nuen aztergai, Euskal Herria bitan zatitzen zuen frontera politikoa. Berlingo Harresia eraitsi berria zen, eta Border Studies delakoak boladan zeuden gizarte zientzietan. Fronterarik gabeko munduaren ilusioa, liberalismoak irabazitako bataila, mugarria zen orduko hartan. Haatik, «Mugarik ez!» mezuak, Euskal Herrian bezala Europako eta munduko beste testuinguru batzuetan, dimentsio berri bat hartzen zuen.

Azurmendik maite zuen paradoxak agerian uztea. «XIX. mendeko [nazio estatuen] nazionalismoak sortu zuen independentismoa», zioen Lorea Agirrerekin 2017an Martin Ugalden izandako elkarrizketan. Beste antzeko paradoxa zenbait azaleratu dira gurean. Mugaldean «Mugarik ez da!» behin eta berriro entzutea, kasu. 1990eko hamarkada amaieran ohikoa zen hura entzutea, kontrabandista zaharrek zein muga oraindik orain bizibide zuten bentatako nagusiek aipatzen zuten orduan. Euroa mugaz bi aldeetan ezarri zenez geroztik, garai bateko

benta zaharrak desagertu egin dira, kasik guztiz, muga negozio duten enporio handien mesedetan, izan supermerkatu, estanko edo gasolin-degi. Begirada erromantizatuz irudikatu den 20. mendeko gau lanari bi estatuen zergen arteko aldeak eman dio segida.

Euskal nazioaz hausnartzen eman zuen Azurmendik bizitzaren zati handi bat, lurraldetasuna baino, hizkuntza erdigunean jarrita. «Nous sommes en Espagne». «Vamos a Francia». «Euskal Herrian gaude». Inor gutxik du buruan AFOMEF izeneko lurralde funtzionalean dagoela mugaren edozein aldetan egonik ere. Aztergai dugu mugaz gaindikoaaren politikak zein heinetan mugak, ezabatu ordeztu, berresten dituen. Berrasmatu ordeztu, berregituratu. Ez baitira nolanahiko mugak nazio estatuarenak. COVIDaren kudeaketak ederki erakutsi zigun duela apenas bost urte estatuaren dispositiboa zenbateraino dagoen bizi eta den eraginkor. Mugarik ez (omen) denean ere.

Estatu frantsesak muga modu intermitentean itxi eta zabaltzen duen garaian, muga pasatzea ez da denentzat aizu, migrazio politikek ezarritako neurriek erakusten duten bezala. Estatuak bere muga propioak gaitzen ditu, zentzu literal zein figuratuan, legez kanpoko neurriak aplikatuz, beste estatu bateko lurraldetasuna urratuz. Migrazio krisia Euskal Herrira iritsi da, 1960-1970etan baino sentsibilizazio handiagoarekin. Muga zeharkatzen zuten portugesez eta magrebtarrek milaka. Beste garai batzuk ziren. Drama eta bizipenak, aldiz, antzekoak, ordukoak eta egungoak.

Euskara, Euskal Herriko hizkuntza izateaz gain, mugaz gaitikoa (ere) bada, berriki Izpegin mugaren eta lurraldetasunaren inguruko tailer batean entzun dudanez. Alabaina, badira zenbait hamarkada mugaz bi aldeetako herritarrak euren artean ingelesez jardun beharrean dirrela praktikan, euskararen ezagutza falta medio. Euskaraz dakitenek, paradoxikoki, «beste aldekoarekin» euskara gehiago «zaintzen» omen dute, gaztelerazko edo frantsesezko esamolde eta maileguak bazter utziz, komunikazioa bermatzeko. Guaia cool ez denean, azkenaldian bolo-bolo dabilzan adierazkortasuna ala komunikazioa eztabaidak, jo-mugan. Nazio parametroetan?